

DEIALDIA CONVOCATORIA 2026

IKASLEAK_ALUMNOS
UPV_EHU

argiaren basoa

ARTISTENTZAKO DEIALDI IREKIA

Argiaren Basoa · «Ikusi ezin duzun argia»

1. TESTUINGURUA

Argiaren Basoa diziplinaz gaindiko proiektu artistikoa da, Bizkaiko baso-ingurune batean kokatua. Bertan, argia, soinua, teknologia eta natura elkarrekin uztartzen dira, sistema sentikor baten moduan.

Basoan gauez sartzea esperientzia berezi bat da: ikusten ez denarekin, sumatzen denarekin eta argi artifiziala desagertzen denean agertzen denarekin topo egitea. «Ikusi ezin duzun argia» ez da ohiko erakusketa bat, baizik eta gaueko esperientzia bat. Ibilbide sentikor bat proposatzen du, teknologia menderatzeko ez, baizik eta entzuteko, sumatzeko eta bizitzeko.

Proiektuak ez du kontakizun itxi bat eskaintzen. Horren orde, argiaren, soinuaren, presentzia biologikoen eta presentzia poetikoen arteko konstelazio bat aktibatzen du. Obra bakoitza keinu txiki bat da ekosistema zabalago baten barruan, eta artista bakoitza nodo bat konstelazio partekatu horretan.

Deialdi honen helburua Argiaren Basoaren lehen erakusketa publikoan parte hartuko duten proiektu artistiko berriak hautatzea da. Hautatutako lanak dagoeneko gonbidatuta dauden artistekin elkarriketan arituko dira, basoa espazio bizi, aldakor eta kaltebera gisa ulertuta.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da «Ikusi ezin duzun argia» proiektuarekin lotutako sorkuntza artistiko garaikideak bultzatzea. Horretarako, proiektu berriak edo dagoeneko existitzen direnak onartuko dira, baldin eta basoaren testuingurura kontzeptualki eta materialki egokitu badaitezke. Helburua da gaueko esperientzia bat proposatzea, iluntasuna argiztatzeko, hautemateko eta bizitzeko beste modu batzuk aztertuz.

Erakusketak argiari buruz dugun ohiko ikuspegia irauli nahi du: kontua ez da gehiago argitzea, baizik eta hobeto argitzea. Ez da dena agerian uztea, baizik eta normalean ikusten ez duguna erakustea. Testuinguru honetan, argia ez da kontrolerako tresna, entzute eta arreta keinu bat baizik.

Argiaren Basoa ekosistema artistiko gisa planteatzen da, non natura, teknologia eta gaur egungo sentsibiltatea maila berean elkartzen diren. Gaur ez da bete beharreko hutsune bat; alderantziz, memoriaz, bizitzaz eta kontakizunez betetako espazio emankorra da. Iluntasuna ez da falta bat, baizik eta abiapuntu eta baldintza. Proiektuak argi, soinu, espazio eta izaki bizidunen esku-hartze sotilak biltzen ditu. Esku-hartze horiek agertu eta desagertu egiten dira, ingurunearekin batera arnasten dute, eta ez dute basoarekin lehiatu nahi; harekin elkarriketan aritu nahi dute.

Bioluminiszentzia da proiektuaren ardatz nagusietako bat. Ez da efektu ikusgarri huts gisa ulertzen, baizik eta argiztatzeko beste modu baten adibide sakon gisa. Mikroorganismoek, landareek, onddoek eta intsektuek sortzen duten argiak ez du itsutzen; ez du inposatzen. Baldintzek ahalbideratzen dutenean bakarrik agertzen da.



Gehiegizko argi artifizialaren aurrean, bioluminiszentzia etorkizuneko argiztapenaren eredu poetiko eta politiko gisa aurkezten da: argi bizia, tokian tokikoa eta bere eraginaz jabetua.

Azken finean, «**Ikusi ezin duzun argia**» gaua berriro balioan jartzeko proposamena da. Sorkuntzaren bidez egindako ingurumen-aktibismo moduan ulertzen da: intentsitatea murrizten duena, erritmo biologikoak errespetatzen dituena eta gauari bere dimentsio organiko eta sinbolikoa itzultzen diona. Ez da salaketa zuzen bat; esperientzia eraldatzaile bat baizik, pertzepzioan, gorputzean eta sentsibiltatean eragiten duena.

3. HARTZAILEEN PROFILA

Deialdia UPV/EHUko (Bizkaia) Arte Ederretako Fakultatean prestakuntza- etapa hauetakoren batean dauden unibertsitate-esparruko pertsonen zuzenduta dago soilik:

- Graduako azken mailetakoko ikasleak.
- Masterreko ikasleak.
- Doktoretza prozesuan dauden pertsonak.

Eskatzaileek ikusmen-sortzaile, soinu-sortzaile eta sortzaile digital gisa jardun beharko dute, artearen eta teknologiaren, *new mediaren*, instalazioaren, argiaren edo praktika hibridoaren eremuetan lan eginez, banaka edo taldean, betiere deskribatutako unibertsitate- testuinguruaren barruan.

4. PROIEKTUEN TIPOLOGIA

Ikerketa-, garapen-, ekoizpen- edo egokitze-fasean dauden proiektuak onartuko dira, betiere baso-ingurunean eta gaueko testuinguruan egin eta garatzeko modukoak badira.

Bereziki baloratuko dira:

Leku zehatz baterako sortutako obrak (site specific).

Aldi baterako esku-hartzeak edo ingurumen-inpaktu txikiko proposamenak.

Ez da ikusgarritasun handiko edo ikusgarri izateko pentsatutako lanik bilatzen. Aitzitik, zehaztasuna, sentikortasuna eta ingurunea entzuteko gaitasuna izango dira kontuan hartuko diren balio nagusiak.



5. HORNIDURA ETA LAGUNTZA

Hautatutako proiektuek honako laguntzak jasoko dituzte:

- **1.500 euroko diru-laguntza**, ekoizpen-gastuetan laguntzeko.
- **Argiaren Basoa** lantaldearen laguntza kuratorial eta kontzeptuala.
- Argiztapenari, soinuari eta sistema interaktiboari buruzko **aholkularitza teknikoa**.
- Proiektua erakusketaren **komunikazioan eta hedapenean txertatzea**.

Gainera, proposamenek kontuan hartu beharko dute:

- Pieza basoko baldintzetara egokitzea (erritmo naturala, hezetasuna, haizea eta benetako iluntasuna).
- Argi-sistema **ez-inbaditzaileak** erabiltzea.
- Objektu itxiak sortu beharrean, **prozesu irekiak** garatzea lehenestea.

6. HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamenak Argiaren Basoako artapen-taldeak eta gonbidatutako laguntzaileek osatutako batzorde batek ebaluatuko ditu, honako irizpide hauen arabera:

- «Ikusi ezin duzun argia» narratibarekiko koherentzia kontzeptuala.
- Elkarriketarako gaitasuna basoarekin, organismo bizia den aldetik.
- Kalitate artistikoa eta planteamenduaren sendotasuna.
- Izaera esperimentala eta sentsibilitate garaikidea.
- Bideragarritasun teknikoa gauean eta ingurune naturalean.
- Erakusketa-ibilbidean errespetuz integratzea.
- Pertzepzio-esperientziaren potentziala publikoarentzat.

7. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Interesdunek PDF fitxategi bakarra bidali beharko dute, honako datu hauekin:

1. Datu pertsonalak eta harremanetarako datuak.
2. Biografia edo CV laburra.
3. Proiektuaren deskribapena (gehienez 4 orrialde), honako hauek barne:

. Kontzeptua.

. Argiaren Basoarekiko harremana edo oinarritzko behar teknikoak.

4. Erreferentziazko ikus-entzunezko materiala (zirriborroak, irudiak, loturak edo aurretiazko lanak).



8. EGUTEGIA

- Deialdiaren irekiera: 2026/02/18
- Proposamenen harrera ixtea: 2026/03/08
- Hautatutako proiektuen jakinarazpena: 2026/03/13

Proiektuaren faseak:

- 1. fasea · Ikerketa eta ekoizpena - martxoa – apirila
- 2. fasea · Muntaia - apirila – maiatza
- 3. fasea · Erakusketa - maiatza – urria
- 4. fasea · Desmuntaia eta amaierako dokumentazioa - urria

9. BALDINTZA OROKORRAK

- Deialdian parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek osorik onartzea.
- Hautatutako pertsonak proiektua basoaren testuinguru espezifikora egokitzeko konpromezua hartzen dute.
- Argiaren Basoak erakusketaren koherentzia eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak diren doikuntzak egiteko eskubidea gordetzen du.

10. PROPOSAMENAK BIDALTZEA

Proposamenak posta elektronikoz bidali beharko dira helbide honetara:

Mail: info@argiarenbasoa.eus

Webgunea: www.argiarenbasoa.eus

Gaian honako hau adieraziz:

Artisten deialdia · **Ikusi ezin duzun argia**

